

Zer egin dezakegu Lea Artibain?

Hori da lehenengo galdera edozein turistak egiten duena gure eskualdera heltzen duenean, eta askotan ibili, jan edo edanez aparte, ez dakigu zer erantzun. Hona hemen zenbait proposamen gure eskualdean igaroko duten denbora betetzeko:

Lehenengo, komeni da bi **turismo bulegoetariko** batera (Lekeitio edo Ondarroa) bidaltzea, bertan interesgarria den informazioa hartzeko. Turismo bulegoan herriko zein eskualdeko informazio guztia eskura dezakete (herrikoia orokorrean, herriko alde zaharrena, eskualdeko ibilbideena, herriko zein eskualdeko planoak, KALATXO: eskualdeko bitxikeriak...) baita egun horretan herrian ospatzen den jai edo ekintzei buruzko informazioa ere, gero turistak bere kabuz interesgarri egiten zaion ikusteko.


Beste aukeratariko bat turismo bulegoetan **Cicerone** foiletoa hartu eta eskualdean dauden kultur eta

natur ondare batzuk autogidatze sistemaren bidez ezagutzea da. Beste bat eskualdeko **ibilbideen** informazioa izanez, paisaia paregabeak aurkitzea. Proposatzen diren ibilbideetariko batzuk eskualdeko zenbait herri zeharkatzen dituzte, baina herrian bertan ere paseo politik eman dezakete. Ibilbide horretatik aparte norberaren ibilbide edo bide propioa eratu dezake **eskualdeko foiletoan** agertzen diren kultur ondareak ezagutzeko. Horretariko toki zoragarri batzuk; Santa Eufemi baseliza Aulestian, Arretxinagako San Migel ermita Markina-Xemein, Ibarguen garaia Etxebarrian, Etxe pintxu Berriatuan, Likona Dorretxea Ondarroan, Andra Mari Eliza Lekeitioan...

Bestela, turismo bulego bertatik eskaintzen diren **bisita gidatuak** aprobetxatu, **Playa de Ondarzabal** txalupa ikusi edota Ziortza-Bolibarren dagoen Simon **Bolibar museo**a ezagutzeko aukera dago.

Aukera guzti horretatik aparte, badaude zenbait **enpresa pribatu** ekintza desberdinak eskaintzen dutenak. Euretarioko batzuk TXO be-launtzia, arku tiroa, piragua alokairua, kontserba lantegira bisita eta gero Kantauriko kontserba eta arrain freskoen dastatzea, urpeko jarduketa, ume eta familientzako tailerrak, ...

Eta, azkenean, gastronomiaz gozatzeko eskualdeko **tabernetako** pintxo bereziak edota, gose gehiago izanez gero, **jatetxe** onak aurkituko dute, non ahal duten probatu eskualdean lehorreraturiko arrain freskoa, batez ere hegaluzea eta zapoa, bereziki legatza Ondarroako erara, marmitakoa, eskualdeko arrain kontserbak, baita eskualdean egindako sagardoa, txakolina eta gazta edota bertatik hazitako barazkiak eta gure baserrietako okela.



CICERONE

Cicerone autogidatze sistemak zure sakelako telefonoaren laguntzaz Lea-Artibai eskualdea ezagutzeko aukera eskaintzen dizu.

Seinalatutako gunera heltzean telefonoan 94361201 zenbakia sakatu eta itxaron doinu labur bat entzun arte. Sakatu ondoren guneari dagokion zenbakia eta entzun nahi duzun hizkuntzari dagokiona. Era honetan ikusten ari zaren kultur ondare nahiz natur ondareari buruzko xehetasunak ezagutu ahal izango dituzu.

Era honetara ezagutu daitezkeen kultur nahiz natur ondareak hurrengo hauek dira:

1. Xemeingo Eliza eta Hilerrria • 2. Ziortzako kolegiata • 3. Arretxinagako Mikel Deuna • 4. Bolibarko Plaza • 5. Markinako Alde Zaharra • 6. Arnoate Ba-

serria • 7. Andra Mari Eliza • 8. Zubi Zaharra-Santa Klara kofradia • 9. Gorozika Auza • 10. Likona Dorrea • 11. Andra Mariren Eliza • 12. Kanpillo • 13. Arranegi Kalea • 14. Bengolea • 15. Santa Katalina Eliza • 16. San Pedro Eliza • 17. Ander Deunaren Parroikia • 18. San Migel Eliza • 19. San Pedro Apostol Eliza • 20. Marierrota eta Leako ontziolak • 21. Urko bidea • 22. Ekosistema Ibaitarra • 23. Mañozka Jaurregia • 24. Auzolanetik Kooperatibismora • 25. Santa Marina baseliza.

Informazio triptiko edo foileto hau eskualdeko turismo bulegoetan, eskualdeko jatetxe eta ostatuetan eta udaletan banatuko da. Beraz, nahi izanez gero Lekeitio eta Ondarroako turismo bulegoetan hartu daitezke.

IBILBIDEAK: Lea-Artibai Bidez-bide


Mendian ibiltzea gustatzen zaizu edo lasai lasai paseatzea? Bide luzeak edo motzak? Zailtasun handikoak edo gutxikoak? Ba hori Lea Artibai eskualdean egin dezakezu.

Aukera horren berri emateko karpetatxoak 6 ibilbideen foiletotxoekin atera ditugu. Bertan proposatzen ditugun ibilbideak:

• Kostako ibilbidea GR 123 • Barrualdetik GR 123 • Ardoaren eta arrainaren ibilbidea GR 38 • Lea ibilbidea • Done Jakue bidea • Urko bidea

Karpeta horrek **bereziki** dira, hau da, bustitzen badira edo basaz betetzen badira lasai trapu busti batekin pasatu edo utzi sikatzen eta berriro hasieran bezala gelditzen da. Beraz, euritan ere lasai ibili gaitzke gure eskualdeko mendietan galdu gabe.

Hauek eskualdeko turismo bulegoetan, eskualdeko jatetxe eta ostatuetan eta udaletan banatuko dira. Beraz, nahi izanez gero ciceroneak bezala Lekeitio eta Ondarroako turismo bulegoetan hartu daitezke.



M^a Rosa Aretxabaleta eta Idoia Lartitegi **TATE GOZOTEGIA** Markina-Xemein

• Noiz eta nola sortu zen Tate Gozotegia?

Bernardo Aretxabaleta beste gozotegi batean lanean zebilen eta 1924an bere gozotegia ipintzea erabaki zuen. Ordudunik Tate Gozotegia leku berean kokatu da eta gu hirugarren generazioa gara. Momentu honetan Tate gure bizimodua da eta bera da gure apusturik handiena.

• Zertan bereizten zarete? Zuen identitateetako bat Kokoteak dira ezta?

Gure zerbitzua kalitatean oinarritzen da eta ondo deritzogu kokoteak gurekin identifikatzea azken finean produktu intsignia da.

• Nondik etortzen da jendea?

Eguneroko bezeroa Markina-Xemeingo edo hurbilekoa da baina jende asko etortzen da Markinatik pasatzen denez opari bezala kokoteak edo zerbait berezia erostera. Baita ere batzuk espreski buru belarri kokoteak erostera etortzen dira.

• Zer baloratzen du bezeroak? Nola egokitzen zarete beraiei?

Jendeak orokorrean kalitatea baloratzen du. Tatek urte askotan kalitate, zerbitzu eta bezeroaren arretari garrantzi handia eman dio eta uste dugu bide onetik goazela.

Gure helburua bezeroa gustura egotea da eta berak eskatzen duena ematea baina esan gure bezeroa aholkatzen ustean duela.

• Beti produktu berriak dituzue dendan. Ze irizpide erabiltzen duzue horretarako? Nork aholkatzen dizue?

Gu geu gara gure aholkulariak. Askok gustatzen zaigu era guztietako establezimenduak ikustera joatea ea zerbait berria edo desberdina duten ikusteko. Oporretan ere kuxkuxeatzen ibiltzen gara eta horrela ekarri ditugu: edateko ur bereziak, infusio desberdinak edota pastelak egiteko osagarri desberdinak.

• Gozogintza elkartearen zaudete?

Bizkaiko Gozogileen elkartasuna elkarte kide gara. Bertatik ikastaro eta pila bat informazio bidaltzen digute adibidez produktuen erreferentziako prezioak, lege aldaketak...

Beraz oso ongarria da guretzat era onetako kide izatea.

• Hemen bebai elkartearen ere bazaudete?

Bai Markina-Xemeingo «Hemen bebai» merkataritza eta ostalaritza elkartearen partaide gara. Uste dugu oso garrantzitsua dela horrelako herrikako elkartearen partehartzea eta gure herriaren alde lana denok egin behar baitugu.

• Aurten Bilboko Merkataritza Ganberako Erakuslehoi Iehiaketakoa Gozogintza Sektoreko saria jaso zenuten (eta ez da lehenengo aldia) eta baita Busca Isusi Saria (Gastronomiako Euskal Akademiak emanda). Pozik egongo zarete.

Errekonozimenduak beti datoz ondo eta publizitate aldetik oso ondo etortzen da baina gure saririk handiena eguneroko bezeroen fidelotasuna da.

• Zure negozioak zer nolako harremana du turismoarekin?

Azken finean turistarentzat beste zerbitzu bat da. Turista bat Markinara etortzen denean beharizan desberdinak izaten ditu eta horretako bat gosari edo hamaiketako eder bat hartzea edo jan ondorengo kafetxoa, beraz gu beharizan hori asetzen saiatuko ginake. Beno eta beti daukate norbaiti oparitxo bat egiteko aukera eta guk gomendatuko genioke hori nahi izanez gero.

• Nola ikusten duzu eskualdeko turismoa? Zer botatzen duzu faltan?

Orokorrean eta zehazki Markina-Xemein eskaintza turistiko eta ekitaldi falta ikusten dugu. Uste dugu frontoiari errentagarritasun gehiago atera behar zaiola eta antolatzen diren ekitaldiei ere komunikazio indartsuago bat egin.

Horretaz aparte, ostalaritza eta merkataritza sektorearen aldetik ere pentsamendu aldaketa egin beharko genuke batez ere ordutegi aldetik. Eta pena bat da Hotel Vega itxita egotea.



Turismo bulegoak

Lekeitioko Turismo bulegoa
Helbidea: Independentziaren enparantza z/g
Ordutegia: 10:30 - 13:30 16:00 - 19:00 (Astelehena -Larunbata)
10:00 - 14:00 (Igandea/jai egunak)
Tel: 946844017 - turismo@lekeitio.com

Ondarroako Turismo Bulegoa
Helbidea: Erribera 9
Ordutegia: 10:30 - 13:00 16:00 - 19:00 (Astelehena -Larunbata)
10:30 - 14:30 (Igandea/jai egunak)
Tel: 946831951 - turismobulegoa@ondarroakoudala.net

Agenda •••

- Apirilak 9-13 Aste Santuak. Herrietan prozesioa
- Apirilak 18 Jazzblues. Uhagon. Markina-Xemein
- Apirilak 26 Umeen V. Euskal Jaia. Lekeitio
- Maiatza 2 Nekazal eta Arrain Kontserba Azoka. Berriatua
- Maiatzak 16 Antxoa Eguna. Ondarroa
- Maiatzak 22-24 Iparraldeko Haizeak. Lekeitio
- Ekainak 5-6 Hiru Harri. Markina-Xemein
- Ekainak 6 Euskal Erromeria. Lekeitio
- Ekainak 13 Zaldi Salerosketa azoka. Etxebarria
- Ekaina 20-21 Euskal Ezkontza. Lekeitio
- Ekainak 23 Aulestiko jaiak San Joanetan
- Ekainak 27 Zapato Azula. Ondarroa

DIRU LAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritza PCT: Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpo proiektzio handia duten jazoerak sustatzea eta lehen eskaintzarekiko berritzaileak diren turismo-produktuak sortu eta merkaturatzea. 2009ko apirilak 3 arte.

SPRI AFI turismo. Honen xedea da finantza laguntzak ematea aktibo finkoetan inbertsioak egiteko Euskal Autonomi Erkidegoko industria, merkataritza zein turismo sektoreetan. 2009ko urriaren 15ra arte.

SPRI Mikroenpresa digitala. 10 langile bano gutxiagoko enpresetan, Informazio eta Komunikazio Teknologia eskuratzeko erraztasun eman, ekipamendua erosteko (ordenagailuak) eta interneterako sarbide seguruak ezartzeko (konektibitatea eta biruskontrako softwarea) eta internet bidez eskuratu daitezkeen zerbitzuen erabileri buruzko prestakuntza bultzatzen du. 2009ko abenduaren 31 arte.

INFORMAZIO GEHIAGO

Leartibai Garapen Agentzia
Markina-Xemein 12 48270 Markina-Xemein
Tel.: 946169088 Fax: 946169217
e-mail: bbasterretxea@leartibai.com
www.learjai.com • www.leaibarra.com

Leartibai
Garapen Agentzia

Lea Ibarra

EUSKADI
atsegin handiz
con mucho gusto

Bizkaia